




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Mandela askatu zuten eguna

Lurmutur Hiria (Hegoafrika), 1990eko otsailaren 11. Nelson Mandela aske utzi zuten, 27 urtez giltzapean egon ondoren. Bezperan, Hegoafrikako presidente F.W. De Klerk Mandelarekin sekretuan bildu zen espetxean, astebete lehenago egin bezala. Aurreko astean presidenteak agindua zion aske utziko zutela, baina data zehatzik ipini gabe. Otsailaren 10eko arratsaldeko bilera hartan, Mandelak ez zuen espero biharamunean askatuko zutenik. Ez zuen espero, eta ez zuen nahi.

“Gogo bizia nuen kartzelatik irteteko, baina lehenago jakinarazi behar zidaten”, idatziko zuen Mandelak *Long Walk To Freedom* autobiografian. “De Klerk jaunari eskerrak eman nizkion, eta esan nion esker txarrekoa ez nuela izan nahi, baina nahiago nuela astebeteko tartea izan, nire familia eta erakundea (ANC, Afrikako Kongresu Nazionala) prest egon zitezen”. Presidentea gelatik irten zen, orduan, eta aholkulariei galdetu ondoren, berriro sartu zen. Biharamunean Mandela kalera irtengo zen nahi eta nahi ez. Bilera amaitutzat eman zuten whisky bana edan ondoren.

Mende laurdenean inork gutxiak ikusi zuen Mandela. Haren itzala murrizteko itxaropenez, Apartheidaren gobernuak haren argazkirik ez zuen zabaltu nahi izan. Otsailaren 11n mundu guztiak ikusi zuen ekintzailearen argazkia: ilea



JULI MICHEL

urdiriduta, bizarrrik gabe eta lehengo mäsail beteak hustuta agertu zen, Winnie orduko emazteari helduta, biak ukabilak gora zituztela.

100.000 hegoafrikar beltz bildu ziren Grand Parade plazaren inguruetan, buruzagia entzuteko prest. Baina ederki kostako zitzaion bertara iristea. ANCK ez zuen nahi segurtasun indar zuriak Mandelaren lehen agerpen publikoa kontrolatzea, baina legeztatu berri zen erakundeak ez zeukan esperientziarik halakoak antolatzen. Zenbait ordu eman zituen bere abokatueta baten etxean gordeta, Desmond Tutuk kezkatuta hots egin zion arte. Mandelaren autoa plazara abiatu zen orduan. Egun hartan jendetzak bitan inguratu zuen Mandelaren autoa, bultzaka, leihoei kolpeka... “Maitasunez hilko gintuztela pentsatu nuen”.

Iluntzean iritsi ziren plazara eta, betaurrekoak kartzelan ahaztuta, Winnierenak erabili zituen ordu erdiko hitzaldia irakurtzeko. “Bakearen, demokraziaren eta askatasunaren izenean” hitz egin zuen. Orain badakigu Mandelak eta Hegoafrikak zer bide egin zuten hurrengo urteetan, baina, Grand Paradeko jendetzan itxaropena nagusi izan arren, tentsioa, mesfidantza eta gerra zibilaren mehatxua ere zabaltu ziren, batez ere biztanle zurien artean. Egun hark argazki historikoa eta galdera asko utzi zituen: moderatuegia izango zen bera giltzapean zela jaio-tako ekintzaile belaunaldi berriarentzat? Muturrekoegia Apartheidaren eroso bizi ziren zurientzat? 71 urterekin gai izango zen aurrean zeukan zeregin gogorrari eusteko, salbatzailetzat zutenen itxaropenak eta eskakizunak betetzeko? ●



LEEDS MUSEUMS & GALLERIES

Zazpi urte segundo baterako

Nesiamon duela 3.000 urte inguru Karnakeko Amonen tenpluan jardun zuen apaiz egiptoarra izan zen eta haren momia Leedseko (Ingalaterra) museoan egon da 1823az geroztik. Azken zazpi urteetan ikerlan berezia egin dute: momia eskaneatu, 3D inprimagailu batean haren aho-barrunbea, laringea eta faringea berregin eta, ikerlariak asmatutako “ahots-traktuen organo” izeneko gailuaren bidez, Ne-

siamonen ahotsa lortu dute. *Scientific Reports* aldizkarian jakinarazi dutenez, soinuak segundo bat irauten du eta “e” bokalaren antzekoa da. Emaizta laburreko ikerlan luzearen erabilera praktikoaz galdetuta, Yorkeko Unibertsitateko Joann Fletcher ikerlariaren erantzuna baikorra da, baina ez oso zehatza: “Hemendik aurrera jendeak beste modu batera konektatuko du egiptoar zibilizazioarekin”. ●